# AURREZ ORDAINTZEKO TARIFEN BALDINTZAK

Prezioen xehetasunak (BEZa barne)

| TARIFA | PREZIOA |
|---|---|
| MUGIKORRA 3 GB | 3 € / 30 egun |
| MUGIKORRA 6 GB | 5 € / 30 egun |
| MUGIKORRA 15 GB | 7 € / 30 egun |
| MUGIKORRA 40 GB | 10 € / 30 egun |
| MUGIKORRA 80 GB | 15 € / 30 egun |
| MUGIKORRA 120 GB | 20 € / 30 egun |

### 1. AHOTS-DEIAK

• Tarifa bakoitzean estatuko eta nazioarteko deietarako minutu-kopuru jakin bat sartzen da, minutuko 0 zentimoan eta dei-ezarpenik gabe. Estatuko deietarako minutak amaitutakoan, 6 zent./min fakturatuko dira (lehen 10 minutuak 0 zent./min) + 18 zent. deia ezartzea.
Nazioartekoen kasuan, herrialdearen arabera:
https://www.masmovil.es/llamadas-internacionales

• Ez dira sartzen tarifa bereziko zerbitzuetarako deiak (901, 902, 70X, etab.) eta zenbaki laburretarakoak.
(https://www.masmovil.es/static/pdf/tarifas-numeracion-especial-mm.pdf)

• Ahots-zerbitzua telefono-elkarrizketetarako bakarrik erabiltzeko da, eta ez “haurtxoak zaintzeko gailu”, “walkie-talkie” edo antzeko beste erabilera batzuetarako.

• SIM txartela gailu mugikorretan bakarrik erabil daiteke. Debeku da telefonoguneetan, sim-boxetan, mintzalekuetan edo telefono-trafikoa kontzentratzeko bestelako elementuetan dei masiboak egiteko edo trafikoa birbideratzeko zerbitzuetarako erabiltzea.

### 2. INTERNETEN NABIGATZEA

• Nabigatu 3 GB, 6 GB, 15 GB, 40 GB, 80 GB eta 120 GB abiadura maximoan (GPRS, 3G, 3G+ edo 4G estalduraren arabera) kontratatutako bonoaren barruan.

• Kontratatutako tarifako datuak kontsumitutakoan, abiadura 64 kb/s-era edo gutxiagora murrizten da, kostu gehigarririk gabe.

### 3. DATU-BONU GEHIGARRIAK

• Handitze-bonuak: datuak urri gertatzen bazaizkizu hilabete solte batean, handitze-bonuak kontratatu ditzakezu hemen: (https://www.masmovil.es/bonos-datos-extra) Aurrez ordaintzekoen kasuan, 1 GB-ko bonua euro batean (BEZa barne) kontratatu ahal izango duzu.

• Kontratatzeko, sartu Bezeroen Gunera, deitu 2373 telefonora edo bidali SMS bat 2377 zenbakira, "MMAMPLIA1" hitzarekin.

naturaletik behin; hau da, zure tarifa hilaren 10ean aktibatu baduzu, tarifa hori hurrengo hilaren 9ko 23:59ak arte egongo da indarrean.

Tarifa berritzeko egunean saldorik duzun edo ez gorabehera:

4.1 Nahikoa saldo baduzu, automatikoki berrituko dizugu zure tarifa.

4.2 Zure tarifa berritzeko saldo nahikorik ez baduzu, **oinarrizko tarifa** batera migratuko da. Oinarrizko tarifa horretako deiak 0 zent./min fakturatuko dira lehen 5 minutuetan; muga hori gaindituz gero, deiak honela fakturatuko dira: 6 zent./min + 18 zent. deia ezartzea.

Ondoren, kontratatutako tarifa berritzeko adinako karga egiten baduzu, tarifa hori automatikoki aplikatuko dizugu.

Adierazitako prezio guztietan BEZa sartuta dago (% 21)

zenbakietara.

- Prezio erakargarriak nazioarteko deietarako, hemen: https://www.masmovil.es/llamadas-internacionales

- TARIFA BEREZIKO zerbitzuak. Kontsultatu prezioak hemen: https://www.masmovil.es/static/pdf/tarifas-numeracion-especial-mm.pdf

- Dei- eta nabigazio-zerbitzuak roamingean. Kontsultatu prezioak hemen: Roamingeko tarifak | MÁSMÓVIL

## 6. BIDALKETA-GASTUAK

- Bezeroari bidaliko zaion SMS txartela doakoa da, baina MÁSMÓVILek 7 € (zergarik gabe) kobratu diezazkioke bidalketa-gastu gisa.